

FUNTZEZKO BALIABIDEAK

Guk ez dakigu gehiegi teknologiarri eta aplikazioari buruz, beraz, horretarako, kurtso bat egitea erabaki dugu arlo honetan gehiago trebatzeko eta informazioa lortzeko. Enpresa bat eratu eta bieratu ahal izateko ideia ona dugunez, aurrera eraman nahi dugu gure lana.

Horretarako, lehenik eta behin, gure proiektua patentatu egin dugu, eta beste norbaitek horrelako bat egiteko gogoia badu, guri ordaindu behar izateko gure litzentzia dela eta.

Bestalde, teknologiarri buruz asko dakien pertsona aditu batekin hitz egin dugu, gure aplikazioa modu egokian egoteko bezeroentzat erabilgarri modu eroso batean. Aplikazioa, erabat amaituta dagoenean, enpresa batekin kontaktatu nahi dugu gure lana publikatzeko.

Hasiera batean, ez du inork ezagutuko, beraz anuntzioen bidez gure enpresa ezaguna egingo dugu. Horrela, jende asko kotxeak aparkatzean asko estresatzen denez, (batipat presaka dabilenean eta ez duenean lekurik aurkitzen) aplikazio hau ordaintzeko prest egongo da eta asko erabiliko du. Horretarako bideo bat eta ikur bat sortuko dugu gure lana sare sozialetan publikatzeko. Gure ikurra ezaguna egingo da eta jende askok jakingo du zein enpresa garen eta zein zerbitzu eskaintzen dugun herri askotan.



Hiri eta herri desberdinetako agintariekin jarriko gara harremanetan, gure enpresaren zerbitzu hau herri horretan erabiltzeko eskubidea edo oneritzia jasotzeko.

Horrez gain ere, diru pixka bat gure proiektua aurrera eramateko eskatuko diegu, hiriarentzat aurrerapen izugarria izango dela azalduz, eta horrela gure mugikor eta ordenagailuak finantzatu ahal izango ditu nahiko erraz.